

Sektorearen txostena 2021

LABURPEN
EXEKUTIBOA

Txosten osoa:
informedelsector.ongdeuskadi.org



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org

Araba

Simone de Beauvoir elkarteen etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. pisua, 1. bulegoa
01001. Vitoria-Gasteiz.
945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Erronda z.g. (5. zenbakiaren aurrean), 3. pisua, C bulegoa.
48005. Bilbo.
944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Iparragirre 8, behea.
20001. Donostia.
943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

Laguntzaileak



AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



GOBIERNO VASCO

araba  álava
foru aldundia diputación foral

 Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako
Foru Aldundia:
Araba, Leizorain, Sestao
eta Ibañeta Diputazioak
  ETORKIZUNA
ORAIN



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

 Bilbao

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Lankidetzaren
Cooperación

"Lankidetzaren eredu propioa, arlo publikoan, parte-hartzean, gizarte-sare aktiboan eta azterketa kolektiboan oinarrituta"

Euskadin askotan esaten dugu **gizarte zibil antolatuaren erantzuna** garaia GGKEak, mundua suntsitzen ari diren bidegabekeria eta desberdintasun nabarien aurka borrokatzeko, eta gure gizartean pertsona askok duten elkartasun eta erantzunkidetasun horren ondorioz jaio ginela, eta gurekin batera, nazioarteko lankidetzarako politika publikoak.

Publikoa denaren ardatz horren gainean oinarritu dugu gure ekintza, eta **gizarte-sare aktiboa** ekarri du eta dakar horrek, gizarte aberatsa sortuz **parte hartzean, gaitasun kritikoan**, eta, batez ere, **elkartasun-konpromisoan. Eredu propioa dugu**, arazoak elkarrekin lotuta dauden mundu honen azterketa kritikoan oinarritua; izan ere, mundu honetan badira neurri ekonomiko eta politiko batzuk desberdintasunetan sakontzen dutenak, eta gero eta handiagoa da pertsona eta lurralde pobretuen arteko arrakala.

Gure ustez, bizitzarekin eta pertsonekin merkantilizatzea, emakumeekin eta neskatuekin objektibizatuz eta trafikatur, pertsonak esplotatur eta herritar jakin batzuen oinarritzko eskubideak urratuz, errotik kendu nahi dugunaren ondorio bat baino ez da. Zailtasun eta zaugarritasun horien aurpegiak bortitzena baino ez du erakutsi pandemiaren testuinguru honek.

Planetak bizi duen **krisi globalaren premiaren** aurrean, aberastasuna birbanatzeko eta jasagarritasun ekologikoa eta soziala bultzatzeko **konpromisoa** behar dugu, lehentasunezko helburu gisa. Azken batean, **atera** egin behar dugu **hazkunde ekonomiko mugagabearen iruditeria nagusitik**, eta gure kezken eta analisien **erdigunean jarri behar ditugu pertsonen zaintza eta bizitza.**

Konpromiso hori datuekin adierazi nahi dugu **euskal GGKE-en sektorearen txosten** honen bidez. Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen biltzen diren garapenerako euskal erakunde asko hartzen ditu barne txostenak, guztiak ere **ibilbide sendoa** dutenak **genero-ekitatearen, justizia sozialaren eta giza garapen jasangarriaren** kausak defendatzen, horiek guztiak funtsezkoak baitira bizitza merezi duen bizitza bat izateko. Lan egiten dugun tokiak, gure oinarri soziala, lehenesten ditugun sektoreak eta beste zehazten dira txosten honetan.

Lan hau, gainera, **gardentsun-tresna** da gure lana **zintzotasunetik eta eraginkortasunetik** egiten jarraitzeko. Gure sarea osatzen duten **euskal GGKE guztien erantzukizun-ariketa** dela uste dugu, aukera ematen baitigu herritarrekin, erakundeekin eta lankidetzan dihardugun gainerako kolektiboekin partekatzeko **gure jarduerak duten irismena eta eragina**, Euskadik guztiontzako eta leku guztietan mundu bidezkoagoa eta jasangarriagoa eraikitzeke egiten duen ekarpena azpimarratuz.

Azkenik, **eskerrak** eman nahi dizkiegu elkarteko bazkide diren GGKE-ei txosten hau egiten parte hartzeagatik, haiek ez bazuten ahalegin hori egin ezin izango baitzen bertan aurkezten den informazioa bildu. Guztiei, eskerrik asko.

Sartu, kontsultatu eta nabigatu gure txostenean; **zeure etxean zaude.**

Josu Urrutia Beristain

Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen lehendakaria

2022ko urria

Zifrak

2.522.771
pertsonengan

GGKE-etan oinarri soziala

eragiten du gure lana,
bereziki emakumeak

742

Euskal GGKE-ek
bultzatutako proiektuak

339
pertsona

ari dira lanean euskal
GGKE-etan

% 72
emakumeak

% 28
gizonak

44.990.299
€

proiektuetan
inbertsioa

58
herrialdetan

ari dira lanean euskal
GGKEak

Euskal GGKE-etan
boluntarioak

1.947
pertsona

% 60
emakumeak

% 40
gizonak

7.135
pertsona

Euskal
GGKE-etan emaileak

Euskal GGKE-etan
bazkideak

81.269
pertsona

%
82,4

Genero politika bat
duten GGKE-en
ehunekoa

84
GGKEk

osatzen dute Euskadiko
GGKE-en Koordinakundea

"Euskal GGKE-ek eutsi diote pandemiaren erasoari, eta munduko milioika pertsonaren giza eskubideak bermatzeko lanean jarraitzen dute"

Lankidetzarako euskal politika duela 30 urte baino gehiago hasi zenetik, Euskadi erreferente izan da arlo horretan nazioarteko esparruan. Hala izan da nazioarteko lankidetzara bideratutako aurrekontu-kopuruekiko konpromisoagatik ez ezik, ikuspegi eta planteamendu berritzaileengatik ere.

Horregatik, sektorean **lorpen asko** egin dira denbora horretan, esate baterako, politika horren oinarri den **lege- eta arau-esparrua** (nahiz eta haren zati bat sistematikoki ez den bete). Era berean, **GGKE-ek** euskal lankidetzaren funtsezko eragile gisa duten zeregina ere azpimarratu nahi dugu; izan ere, lan-sare baliotsua eskaintzen dugu, konfiantza, konplizitatea eta elkarrekiko ikaskuntza, gure hirietako eta herrietako auzoetatik (hemen Euskadin) eskuz esku lan egiten dugun herrialde pobretuetako komunitate eta eremu urrunenetara iristen dena.

Hala ere, euskal garapenerako lankidetzak **erronka global** garrantzitsuei ere egin behar die aurre, hain zuzen ere interkonektatutako mundu honetako biztanleei eragiten baitiete erronka horiek. Horien artean, nabarmentzekoak dira larrialdi klimatikoa, **genero-ekitatea, planetaren jasangarritasuna, migrazioak (eta migrazio horiek eragiten dituzten arrazoiak), giza eskubideen unibertsaltasuna, eskuin muturraren** eta gorrotoa sortzen duten diskurtso arrazista, baztertzaile eta xenofoboena **gorakada, garapenerako politiken koherentzia**, edo kalitatezko euskal lankidetzara-politika adostuak indartzen jarraitzea, zailtasunak zailtasun, egonkor iraun dezaten eta pertsonak erdigunean jar ditzaten, gainerako gizarte-politikekin batera.

Horretan guztian, **GGKE-ek gure rol protagonikoa izaten jarraitu behar dugu**, gure esperientziak eta ezagutzak bermatzen baitute gure lana. Sentitu egiten dugu, gainera, **herritarrek**, beren konpromiso eta ahalegin solidarioarekin, sektoreari eskaintzen dioten **laguntza eta hats hurbila** eta gero eta handiagoa. Horri eta erakunde publikoei esker, erakundeen erantzukizunarekin batera, eusten diogu **2 milioi eta erdi lagun baino gehiagorekin** planetako hainbat lekutan **egiten dugun lanari**.


Gure erakundeei, haien lanari eta protagonistei buruzko argazki orokorra eskaini dugu **laburpen exekutibo** honetan. Gainera, **istorioak** sartzen ditugu **lehen pertsonan**, eta horiek laguntzen dute txosten hau herritarrengana hurbiltzen eta garapenerako lankidetzaren balio erantsia eta gizartearen eraldaketan duen ekarpena hobeto ulertzen. **Webgune honetan dago txosten osoa** eta inkestari erantzun dioten erakundeen 2020. urteari buruzko informazioa bildu da bertan. Gaur egun, **84 erakundek** osatzen dute **Euskadiko GGKE-en Koordinakundea**. **2021ean bildu ziren txosten honetarako datuak, eta ordu hartan 81 erakundek osatzen zuten sarea. 57 erakunde kidek erantzun zioten inkesta honi.**

"84 erakunde eta xede bakarra: mundu bidezkoago bat pertsona guztientzat, leku guztietan"


Txosten honetan islatutako 2020ko datuen arabera, **339 pertsonak** lan egiten dute gure erakundeetan (**% 72 emakumezkoa da eta % 28 gizonezkoa**), beraz, argi eta garbi **ondorioztatu dezakegu GGKE-en sektorea feminizatuta dagoela**. Alabaina, **kooperanteei erreparatuz gero**, ikusten da **emakumeen ehunekoa nabarmen jaisten dela % 64ra arte**, eta, aldiz, gizonena % 36ra arte igotzen dela. Langile gehinenek lan egiten dute GGKE-ek Euskadi duten egoitzetan.

Personal de las ONGD según sexo y lugar de trabajo

Utiliza el selector para cambiar de ONGD o pulsa en los botones para cambiar de datos



GGKE-etan lan egiten duten pertsonen artean, **25 urtetik gorako emakume**arena da profil ohikoena.



Coordinadora de ONGD Euskadi.
Informe del Sector de las ONGD en Euskadi 2021
Gráfico basado en el código original de Fernando Anido para
La Coordinadora.

Datos

</> Insertar

Descargar


Euskal GGKE-etako **kontratuen % 79 mugagabea da**, eta **% 21, aldi baterakoa**. Aipatzekoa da kontratu mugagabea duten emakumeen kopurua **% 8 gutxitu dela**.

Lanaldi osoa da nagusi sektorean. Kontratuen % 69 lanaldi osokoa da; % 19, lanaldi partzialekoa, eta % 13, lanaldi murriztukoa. Lanaldiak sexuaren arabera aztertuta, desberdintasunak ikusten dira berriz ere. Gizonen % 82k lanaldi osoa du, eta % 64k emakumeen artean.

Hori horrela, egiaztatuta gelditu da lanaldi murriztua feminizatuta dagoela, emakumeen % 16k baitu oro har zainketa familiarrekin lotuta egoten den kontratu-mota hori, eta, aldiz, gizonen artean, % 4k bakarrik.


Personal de las ONGD según sexo y tipo de contrato

Utiliza el selector para cambiar de ONGD o pulsa en los botones para cambiar de datos



Personal de las ONGD según sexo y tipo de contrato

Utiliza el selector para cambiar de ONGD o pulsa en los botones para cambiar de datos



Sektore feminizatua bada ere, tradizionalki, **gizonak egon dira erakundeen erabaki-postuetan**; bizi garen gizarte patriarkalaren erakusgarri da hori. Datuen arabera, **erakundeen gobernu-batzordeetan, emakumezkoa da % 53, eta gizonezkoa % 47**. Hori horrela, egiaztatuta gelditzen da **emakumeen ordezkariak dagokiena baino baxuagoa dela**, emakumeen nagusitasuna ez baita hain altua, sektorea oso feminizatuta dagoela kontuan hartuta, lehen esan dugun eran (emakumezkoa da langileen % 72, eta gizonezkoa % 28).

GGKE-etako **zuzendaritza- edo koordinazio-postuei dagokienez**, ikusten da **gizonen eta emakumeen ehunekoak alderantzikatu egiten direla ia: % 60 gizona da, eta % 40 emakumea da**. Gogorarazi nahi dugu kontratatutako langileen artean emakumezkoa dela % 72, eta gizonezkoa % 28.

GGKE-en erakunde-politikei dagokienez, erakundeen % **82,4k genero-politika bat du**. % **70ek sexu-jazarpenari buruzko protokolo** bat du indarrean. % **28k ingurumen-kudeaketarako politika** bat landu du.

Gure lana

"2 milioi eta erditik gora pertsonarekin lan egiten dugu, 58 herrialdetan eta 742 lankidetzaproiekturen bidez"

Gure erakundeek egiten duten lana mundu osoan zehar zabaldua dago, eta **2.522.771 pertsonari** iristen zaie.


58 herrialdetan egiten dute lan, hiri handietan zein herrixketan, eta hainbat esparrutan. Erakunde askok bizi-baldintzak hobetzen laguntzen dute beste lankidetzaproiektuak ez dagoen urrutiko eremu isolatuetan.

Horien guztien lana batuta, **742 proiektu** dira, eta **44.990.299 €** inbertitzen dira horietan.

Herrialde hauek izan dira inbertsioen ahalegin ekonomikoen xede: **Guatemala, Kolonbia, Kongoko E. D., India, Palestina, Senegal, Mendebaldeko Sahara, Mexiko** eta **Kuba**, beste hainbaten artean.

Mapa de proyectos por países


'M' = millones; 'k' = miles.  Pulsa en un país para ver más detalles, como cuántos proyectos tiene cada ONGD en él y cuánto invierte en ellos



Proiektuei erreparaturuz gero, guztizko 742 proiektuetatik, honela banatuta daude gehienak: Guatemalan daude proiektu gehien (69), eta, jarraian, Perun (67), Ekuadorren (61) eta Indian (57). Azpimarratzekoak dira, orobat, Bolivia (41), Kolonbia (40) eta Kongoko E. D. (34).

Mapa de proyectos por países


'M' = millones; 'k' = miles.  Pulsa en un país para ver más detalles, como cuántos proyectos tiene cada ONGD en él y cuánto invierte en ellos




Kontinenteen ikuspegitik, Amerikan lan egiten dugu pertsona gehienekin (1.184.805 pertsona); eta hurrena, Afrikan (533.996), Ekialde Ertainean (486.168) eta Asian (347.052).

Ekialde Ertaina da GGKEok emakumeen ehuneko handienarekin (% 70,5) lan egiten dugun eremu geografikoa.

Población con la que trabajamos

Utiliza los botones para ver las cifras en conjunto o compararlas.  Pulsa en las columnas del gráfico para ver más detalles. La recopilación de estos datos es compleja y la cifra puede estar duplicada. La ausencia de datos sobre la población con la que trabaja cualquier ONGD no significa que no trabajen con personas de un continente: muchas tienen proyectos en la zona (ver el mapa del informe para más detalles)



Coordinadora de ONGD Euskadi.

Informe del Sector de las ONGD en Euskadi 2021

Gráfico basado en el código original de Fernando Anido para La Coordinadora.

[Datos](#)


[<> Insertar](#)

[Descargar](#)

Gure erakundeen proiektuek **19 jarduera-sektore** dituzte ardatz. Zehazki, **39 herrialdetan**, hezkuntzarekin lotutako lana egiten dute; herrialdeen artetik, nabarmentzekoak dira Bolivia, Ekuador, Kolonia eta Kongoko E. D. **33 herrialdetan, emakumeen ahalduntzearekin** lotutako lana egiten dute; herrialdeen artetik, nabarmentzekoak dira Peru, Nikaragua, El Salvador, Guatemala, Kuba, India eta Senegal. Horien atzetik, **giza eskubideen defentsarekin** lotutako lana egiten dute **31 herrialdetan**, **nekazaritzarekin** lotutakoa **24 herrialdetan**, eta **osasunaren** alorreko **27 herrialdetan**.

Sectores y población destinataria de los proyectos de las ONGD

Pulsa en un país para ver las ONGD con proyectos enfocados en un sector o tipo de población




Oro har, ikusten da **gure erakundeen lanak inpaktu nabaria duela emakumeen eta nesken bizitzetan**. Gure lanaren xede direnen artean, **emakumezko populazioa handiagoa da lan-arlo guztietan** (hezkuntza, osasun, nekazaritza, etab.) eta munduko eskualde guztietan. Hain zuzen ere, **1.592.872 emakumerekin lan egiten dugu; gizonak, aldiz, 962.998 dira**.

Lankidetzaproiektuen hartzaile den populazioari dagokionez, erakunde gehienek emakumeei zuzentzen diete lana **33 herrialdetan**. **Landa-eremuetako populazioak** ere arreta handia jasotzen du 22 herrialdetan, eta **populazio osoa** ere hartzaile da 35 herrialdetako hainbat proiektutan.

Sectores y población destinataria de los proyectos de las ONGD

Pulsa en un país para ver las ONGD con proyectos enfocados en un sector o tipo de población



Nork laguntzen digun

"GGKE-en oinarri soziala: handitzen ari den konpromisoa"

2020an, **euskal GGKE-en oinarri soziala 90.400 pertsonakoa zen**; kopuru horretan sartuta daude laguntza ekonomikoa ematen dutenak (bazkideak eta emaileak) eta boluntariotza-lana egiten dutenak.

1.947 pertsonak dihardute boluntario gisa euskal GGKE-etan; **10etik 6 emakumeak dira (% 60)**. GGKE-en egoitzetan edo haien gobernu-organoetan parte hartuz boluntariotza-lanen bat egiten duten pertsonak sartu ditugu atal honetan.


Boluntariotza-lanean presentzia handiena duen adin-tartea **30 eta 64 urte** bitartekoa da (**emakumeak** bereziki).

Pertsona emaileak ere behar-beharrezkoak dira GGKE-en lana gertatu dadin; zehazki, **7.135 pertsona dira**.

81.269 bazkidek laguntzen diete euskal GGKE-ei; gehienak partikularrak dira, bazkide diren erakunde pribatuak baino gehiago.

Base social de las ONGD

En número de personas y entidades. 'k' = miles.  Pulsa en las barras para desglosarlas y, para volver, pulsa en un sitio en blanco del gráfico o en el botón encima de él



Coordinadora de ONGD Euskadi.
Informe del Sector de las ONGD en Euskadi 2021
Gráfico basado en el código original de Fernando Anido para La Coordinadora.

 Datos

 Insertar

 Descargar


Gure kontuak

"Pandemia gertatu bada ere, euskal erakundeen finantziazioak joera kontinuista du garapenerako lankidetzarekin"

2020an, azterlan honetan parte hartu duten GGKE-en **finantziazioaren zatirik handiena (% 77,8) funts publikoetatik dator**; 49.550.929 € zehazki. Kopuru horretatik, % 82 erkidegoetako eta tokiko funtsetatik dator, eta gainerakoa, esparru nazionaleko edo europarreko funtsetatik.

GGKE-ek jasotzen duten **gainerako finantziazioa, % 22,2, pribatua** da (14.141.095 €). Gehienak (finantziazio pribatu osoaren % 40,6) **noizean behingo dohaintzak** dira; horien artean sartzen dira pertsona fisikoen noizean behingo dohaintzak eta baliabideak lortzeko gainerako kanpainak. Horien atzetik datoz **aldizkako kuotak**; GGKE-en funts pribatuen % 33,5 dira, zehazki. Hirugarren postuan daude **bestelako diru-sarrera pribatuak**; finantziazio pribatuaren % 25,9 dira.


Ingresos de las ONGD


'M' = millones; 'k' = miles.  Pulsa en las barras para desglosarlas y, para volver, pulsa en un sitio en blanco del gráfico o en el botón encima de él. Utiliza los botones para cambiar de año



Coordinadora de ONGD Euskadi.
Informe del Sector de las ONGD en Euskadi 2021
Gráfico basado en el código original de Fernando Anido para La Coordinadora.

 Datos

 Insertar

 Descargar


"Eraldaketarako hezkuntzako eta larrialdietako lankidetzaproiektuak GGKE-en jardueraren ardatz"

2020an, erakundeek, orotara, **48.896.063 €-ko inbertsioa egin zuten garapenerako lankidetzarekin, ekintza humanitarioarekin eta herritartasun globalerako hezkuntzarekin lotutako jardueretan, besteak beste.**


Gure erakunde gehienek garapenerako lankidetzaren alorrean dihardute, baina batzuek gizarte-ekintzako jarduerak egiten dituzte; Euskadin zaurgarritasun-egoeran dauden populazioak dituzte xede ekintza horiek.




Garapenerako lankidetzaren aurrekontuari bakarrik begiratzen badiogu, azpimarragarria da **gastuen % 76,58 garapenerako proiektuak eta programak** gauzatzeko erabili zela. **% 13,45 eraldaketa sozialerako hezkuntzarako, eragin politikorako eta boluntariotzarako** erabili zen. Gainerako baliabideak, hau da, **% 9,9, ekintza humanitarioko eta larrialdietako proiektuetan** inbertitu ziren.

Gastos de las ONGD

'M' = millones; 'k' = miles.  Pulsa en las barras para desglosarlas y, para volver, pulsa en un sitio en blanco del gráfico o en el botón encima de él. Utiliza los botones para cambiar de año



 Coordinadora de ONGD Euskadi.
Informe del Sector de las ONGD en Euskadi 2021
Gráfico basado en el código original de Fernando Anido para La Coordinadora.

 Datos  Insertar  Descargar